

ADINEKOAK EGOITZATAN ZAITZEAREN KOSTUA

Dependentzia, Diseinua eta gizarte-ingurunearen ondorioak

Kostuei buruzko gogoetak eragin nabarmena baldin badu ere politikazko erabakiak hartze-ko orduan, adinekoei zerbitzuak diseinatu eta eskaintzeari dagokionez, oso ikerketa gutxi egin da ildo honetatik. 1981 ean Ingalaterra eta Galesko Gizarte-Zerbitzu Pertsonalen Ikerketarako Unitateak adinekoen etxeetan egindako ikerketa batek material interesgarria eskaintzen du zentzu honetan. Ondoren laburtuko dugun artikuluan, emaitza horien inplikazioak aztertzen saiatuko gara.

Hasteko esan behar da adinekoentzako egoitzen kostu errealari erantzuteko hornikuntza atergabe eta asko hazi dela Bigarren Mundu-Gerrateaz geroztik herrialde sail batean eta batez ere gorakada nabarmenak azken hamar urteetan gertatu direla. Zenbait herrialdetan gertatu den inflazioak ezinezko bihurtu du behar bezalako zerbitzuak eskaintzea parez —pare egin diren hornikuntza-igoerekin. Parez-pare sektore pribatu bat hedatu da hutsune publiko honi aurre egin nahirik, baina ez du inola ere defizitaren zuloa betetzerik lortu, oraingo testuinguru demografikoaren baitan.

Nahiz eta kostu-inflazioa handia izan eta datozen urteetarako ikuspegi ilunak egon, hala ere adinekoak zaintzeak sortzen duen kostuari buruzko ikerketa fidagarri eta sakonen eskasia handia dago. Orain arte erabaki politikoak hartu behar izan dituztenek empresa inkestagileen eskutan izan utzi dute behar duten-baina inoiz ere nahikoa izan ez den-informazioa biltzea. Kostuen analisia efektibitatearen ebaluaketari berez darion zerbait da, eta zainketari dagokionez, zer den eraginkor edo efektiboa eta zer ez den finkatzea oinarritzkoa da egin litekeen edozein ikerketarako. Ongizate produkzioaren ikuspegiak erakusten du nola sarritan arbuia-tua izan den kostu-eraginkortasun auzia bidera daitekeen analisiaren sarrera zainketaren kalitatea eta bezeroaren bizi-kalitatea eza-

rriz. Ongizate produkzioaren ikuspegiak zabala eta malgua izan behar du eta tentuingu bat eskaini behar du bere baitan kostuen azterketa kokatzeko. Ongizate produkzioaren planteiaketa honako honen behaketatik abiatzen da: baliabideen sarrerek (input) (pertsonal-mailak, kapitala eta beste baliabide fisiko batzuk) baliabidezkoak ez diren sarrerekin konbinaturik (gizarte-ingurunearen, bezeroen eta pertsonalaren ezaugarriak) azken irteera (output) batzuk sortzen dituztela (aldaketak bezeroaren eta berorien inguruko batzuen ongizatean). Baliabide-sarrerek kostu asoziatuak dituzte; aitzitik, baliabidezko ez diren faktoreak funtsean kostugabeak dira, nahiz eta sarritan baliabideekin oso harremankide izan.

Kostu-bariazioen teoria

Lehenengo eta behin adinekoentzako egoitza batetik bestera eta administrazio batetik bestera bariazio handiak ageri dira ematen dituzten kostuen artean. Gerta litekeen hutsegiteak izan litezke bariazio batzuen argibide, baina estatistiketan ageri diren bariazioak handiegiak izaten dira akatsen eta antzekoen bidez esplikatu ahal izateko. Izan ere ez bait da ulertzekoa nola administrazio bateko adinekoen egoitzak zerbitzu bera emateko bi aldiz kostu handiagoa duen beste batekiko konparazioan. Diruari

errentagarritasun hobea ateratzen zaio ala edo zeharo zainketa mota ezberdinak eta zirkunstantzia ezberdinetan ematen dira? Horregatik ahalegin berezi bat egin beharra dago gauza berdintsuak edo parekoak konparatzen eta baloratzen direla ziurtatzeko datu horiek balioaren bat izatea nahi izanez gero.

Jakina, azalpen bat baino gehiago eman liteke kostuen bariazio hain nabari horri buruz: agintari batzuek soldata hobeak ordaintzen dituztela pertsonal egokia urri dagoelako edota egoiliar kopuru handiagoak eskatzen dituztela zerbitzu bererako edo egoitza txiki ugariegi dituztela eta "garestiegi" gertatzen dela berorien kudeaketa. Nola azter daiteke faktore mota ezberdin hauek kostuen baitan duten eragina eta nola uztar kidetu daitezke itxuraz elkarren kontrakoak diren eragin horiek? Teknika ugari daude kostu-bariazioak esplikatzeke, baina indartsuena eta erabilgarriena **kostu-analisi estatistikoa** deritzona da, zuzenean eta informazioarekin **kostu-funtzioaren** irudikapen enpiriko bat eskaintzen bait du.

Kostu-funtzioak alde batetik, zerbitzu bat ematearen kostua eta bestetik, zerbitzu horren emaitzak eta erabilitako baliabideen prezioak jartzen ditu harreman kalkulatuan. Beste faktore batzuek, esaterako, zainketa-unitatearen "tamaina"k, bezeroen ezaugarriek, zainketaren antolamendu eta organizazioak eta abarrek ere izango dituzte inplikazioak kostua igoerazteari dagokionez eta horiek era sar daitezke harreman enpirikoan. Kostu-funtzioaren analisiaren helburu nagusia egoiliar bakoitzeko kostu guztizko eta batezbestekoaren artean dagoen harremana kalkulatzeko da eta baita kostuan nabarmendu diren bariazioak "esplikatzeko" ahalegin batean hipotetizaturiko eraginak ere. "Esplikazioa" erregresio anizkunen analisi teknika estatistikoaren bitartez lortzen da, zainketa-unitate, bezero edo agintaritza lokaletan behakizun-lagin bati aplikatuz. Emaitza edo irteera (output) maila, sarrera-prezioak, teknologiaren egoera eta abar, funtzioak produkzio-kostu "igurikatua" ematen du, hau da, kostu guztizkoaren edo batezbestekoaren maila batezbestekoa kostua determinatzen duten faktore horien maila berezien arabera. Funtzioaren forma apriorizko kontsiderazio teorikoen eta esperientzia enpirikoen elkarreraginez determinatzen da.

1981 eko udazkenean ikerketa bat egin zen Ingalaterrako adinekoen etxeei buruz eta bertan aztertu ziren faktoreak, hau da, kostuetan potentzialki eragina izan zezaketenak, bost kategoriatan banatu ziren:

- a) *Etxeen ezaugarriak.*
- b) *Pertsonalaren ezaugarriak.*
- c) *Etxeak eskaintzen zituen zerbitzu ez-egoitzazkoak.*
- d) *Egoiliarren ezaugarriak.*
- e) *Etxeak kokaturik daudeneko guneen ezaugarriak.*

Kategoria hauek beren baitan dituzte aurreragoko ikerketa batean faktore kostu-igoerazle gisa deskribatu ziren guztiak, beraietako hiru izan ezik. Hiru salbuespenak hauek dira: gizarte-ingurunea, efizientzia eta jabegoa.

Etxeen ezaugarriak

Kostu-emaitza harremana aztertzeke, lehenago egindako ikerketa batek bolumena eta produkzio-indizearen arteko berezketak egiten zuen eta badirudi kontutan hartzekoak direla kostu-ondorioei dagokienez. Normalean erabiltzen diren ohe-kopuruak ematen du bolumena. Produkzio-indizea neurtzeko okupazio-indizea eta egoiliarren mugimendua erabili ziren. Okupazio-indizea definitu zen ikerketa egin zen gauean etxean zeuden egoiliar kopuruaren, denbora baterako ausente zeuden egoiliarrek ere barne zirela, eta normalean erabilerarako prest zeuden oheen arteko ratioa bezala. Batezbesteko kostuaren eta emaitz maila edo iharduera-eskalak adierazten du eskalaren ekonomia edo desekonomiak eta horrela, instalazioaren alderdi kostu-urritzailea. Gure kostu-funtzio kalkulaturako oso garrantziko da talde-bizitzarako printzipioaren gainean diseinaturiko etxeak eta bestelakoak berezteak. Talde-bizitzako etxetat hartu ziren egoiliarrek jan, lo eta bizitza beste talde edo egoiliarrengandik aparte egiten bazuten, eta erdi-taldebizitzakotzat, baldin eta logelak eta bizitzeko espazio guztia edo piska bat egoiliar-taldeentzat antolaturik bazukaten. Erdi-taldebizitzako etxeek ez dute aparteko eraginik kostuetan eta horegatik "bestelakoak" kategorian sartu ziren. Bi etxe motentzako batezbesteko kostuak U-forma nabaria hartzen du. Kostu operatiboak minimizatu egiten dira (gainerako guztiak berdin badirau) 68 ohetako eskala batean talde-bizitzako printzipioaren gainean diseinaturiko etxeentzat eta 58 ohetako eskala txikiagoan beste etxeen kasuan (erdi-taldebizitzako etxeak barne direla).

Pertsonalaren ezaugarriak

Sarritan esan ohi da zainketa-unitateak garestiagoak direla besteak baino pertsonal-egoiliar ratio altuagoak dituztelako. Hau zalantzarik gabeko egia da, baina gutxienez badira bi arrazoi baieztapen hauekin kontuz ibiltzeko. Aurrenik, pertsonal-egoiliar arteko ratioak altuagoak izateko joera dute, *coeteris paribus*, egoiliarrak zenbat eta menpekoagoak diren. Horrela kostu-bariazioaren benetako iturria kasu honetan ez da pertsonal-egoiliar ratioa edo pertsonalaren hornikuntza-maila, baizik eta egoiliarren menpekotasun agregatua. Kontuz ibiltzeko dagoen bigarren arrazoia pertsonalaren hornikuntza-mailak eta kostuek gauza bera neurtzea da-baliabidezko emaitzak. Bata bestean dauden diferentziak esplikatzen erabiltzea tautologikoa da, beraz. Kostu-bariazioak pertsonal-hornikuntzazko diferentzietan egozteak zilegi da pertsonalaren ezaugarriak kontutan harturik, eta batez ere, beren jarraera, pertzepzio, esperientzia eta koalifikazioak, eta orduan bakarrik.

Pertsonalaren bi ezaugarri aztertu ziren regresio-ekuazioetan: gainbegiraketaren proportzioa eta zainketa-pertsonal koalifikatu-erizainak (% 9) eta gainbegiraketaren proportzioa eta gizarte-langile mailako koalifikazioa (% 2). Erizainez osaturiko pertsonal koalifikatuaren proportzioak eragin apala zuen batezbesteko kostuetan eta ez zen iristen estatistikoki adierazgarritasunik izatera. Gizarte-langile koalifikatuzko pertsonalaren proportzioa apalegia zen inolako eraginik izateko erregresio-ekuazioetan.

Pertsonal gehigarriaren erabilera (ikasleak (% 2) eta borondatezkoak (% 4) erlazio negatiboa zuten kostuekiko, baina ondorio hori txikia zen eta ez zen estatistikoki adierazgarria.

Etxeak eskainitako zerbitzu ez-egoitzazkoak

Izenburu honen pean aztertutako zerbitzuak hauek dira: eguneko zainketa zentruan eta eguneko zentro bat erantsia, aloiamendu babestua, zentruko pertsonala eta instalazioaz baliatuz, zentruari edo zentru-multzo bati dagokion mikrobusa eta kanpoan jateko otorduen prestakuntza zentruan bertan.

Eguneko zainketa, eguneko zentru eta aloiamendu babestuari dagokienez plaza edo bizitoki kopurua eta zentruko pertsonalaren erabilera instalazioetan, faktore hauek kos-

tuetan duten inpaktoa aztertu da. Bakoitzak inpakto positiboa du kostuetan baina aloiamendu babestuaren kasuan, zeinetarako zentruetako hamabik (% 6) pertsonala hornitzen bait du, izan da efektu adierazgarriak kostuetan. Eguneko zentruen kasuan % 2k bakarrik hornitzen dute pertsonala. Zentruak mikrobus bat izateak oso eragin negatiboa txikia zuen beste faktore kostu-igoerazleak kontutan harturik, eta kanpoan jateko otorduen prestakuntzak efektu positibo moderatua zuen, baina ez bata eta ez bestea ez ziren iristen estatistikoki adierazgarria izateko mailaraino. Egun-zainketaren hornikuntzak eta kanpoan jateko otorduek prestakuntza-egoitza-zainketaren kostuak itxuraz ez zituela gehitzen aurkitzeak esan nahi zezakeen hornikuntzan erabilitako pertsonala eta beste baliabideak ez daudela egoitzako aurrekontuan sartuak, edota tokiko agintariek espero dutela zentruko pertsonalak bere gain hartzea, ez-egoitzakoak diren zeregin hauek zama gehigarri eta konpentsatugabe gisa. Honek ondorio kaltegarria izan lezake zainketaren kalitatean, baina aski zentru gutxi ziren honetan ari zirenak.

Egoiliarren ezaugarriak

Guk kalkulaturiko kostu-funtzioaren ezaugarri garrantzizko bat kostua eta dependentziaren arteko asoziazioa da. Honako adierazgailu hauek aztertu genituen aurrena: mobilitatea, inkontinentzia, konfusioa eta norbere burua zaintzeko gaitasuna garbitu, bainatu, jantzi, elikatu eta komuna erabiliz. Gainera, portaera-arazo larriak zituzten egoiliarren proportzioa eta eta depresio-sintomarekin zeuden egoiliarren proportzioa, kostuan eragin potentziala izan zezaketentzat hartu ziren. Dependentsia neurtzeko sistema ezberdinak erabiltzeak (Katz, Booth) eta dependentziaren neurketan elementu indibidualak duten eraginak ez zituen emaitzak hobetu. Kostuarekin lotura adierazgarria eta iraunkorra zuten dependentziaren osagai indibidualak mobilitatea, komuna erabiltzeko gaitasuna eta konfusioa ziren.

Dependentzi adierazgailuen eta batezbesteko kostuaren arteko harremanean ageri da, dependentzi eskalako hirugarren eta laugarren kategoriak konbinatu egiten zirela kategoria bakoitzeko proportzioak berdintzeko, hirugarren kategoriak egoiliarren % 11 bat hartzen duelarik. Depresioak eta portaera-arazoez dute eragin nabarmenik kostuan dependentzi neurtzea erabiltzean adierazitakoaz aparte, dependentzia arin eta astuneko kategorietako egoiliarren proportzioa 0.30 eta 0.50 izaki. Dependentsia eta

kostuaren arteko harremanaz gainera, zentru bakoitzeko ohe kopurua kontutan hartzen duen aldagai bat sartzeak dependentsia arin eta astuneko kategorietan dauden egoiliarren proportzioan erakutsi du zentru txikiak erlatiboki kostu handiagoei aurre egin behar izan dietela egoiliarrek dependenteagoak diren heinean. Jakin bedi, zentruen % 5ak bakarrik zituela 70 ohe baino gehiago.

Egoiliarren mugimendua lau adierazgailuren bidez neurtu da: ikerketa-data baino lehenagoko hamabi hilabeteetan onarturiko egoiliar iraunkorren ratioa normalean erabiltzen diren ohe kopuruarekiko, alta iraunkorren ratioa ohe kopuruarekiko, egonaldi laburrerako onarpenen ratioa ohe kopuruarekiko eta egonaldi laburreko altak ohe kopuruarekiko. Onarpen eta alta emate iraunkorren ratioak nahiko koerlazioa handian zeuden ($r = 0.68$) eta egonaldi laburren ratioak ia lerrokideak ziren ($r = 0.99$), baina egonaldi laburreko eta iraunkorren arteko koerlazioak oso txikiak ziren. Mugimenduaren aldagaietako bakoitzak inpakto positiboa zeukan kostuan eta egonaldi labur eta iraunkorreko mugimendu-neurri hoberenak ekuzioan lortzen ziren. Honek esan nahi du seguraski gehigarritzko kostua duela pertsona bat zentruan hartzeak, eta batez ere bertara moldatzen laguntzeak, baita alta emateak ere.

Gizonezko eta emakumezkoak batera zaintzen zituzten zentruetan ikusi zen nabarmenki kostu handiagoak zituztela, sexu bakarrekoen aldean. Sexu-konposizioak kostuetan zuen eraginak badu zerikusia talde-bizitzazko antolaketekin baina ez zentruaren tamainarekin. Sexuak nahasturik eta talde-bizitza duten zentruak nabarmenki kostu handiagokoak dira beste edozein antolaketetakoak baino. Hala ere, bi talde-bizitzako zentru bakarrik ziren sexu bakarreko. Dependentsia eta talde-bizitzaren arteko harremana ere aztertuta zen baina aldagai bereziekin lortutako emaitza ez zen aldatzen.

Zentruak kokaturik daudeneko guneen ezaugarriak

Puntu honetan eskulanaren kostuaren neurketa egin nahi zen eta tokian tokiko zenbait ezaugarriak sarrera-prezioetan eragina izan zezaketela uste zen, adibidez langileak kontratatzeke zailtasun handiagoa edo txikiagoa izateak. Horregatik langabezi tasa, emakumezkoen iharduera ekonomikozko tasa eta biztanleriaren barreiatutasuna ere kontutan hartu ziren. Aldagai guzti horien eragina ez zen oso adierazgarria izan.

Bariazio eta diferentzia ohargarri zenbait

Kostu-funtzio bat egokitzearen arrazoi bat kostuak testuinguru egokietan kontsideratzearen ziurtapena da, hau da, kostuak konparatzekoan faktore estrainioen eraginak aurretik kontutan hartzea ziurtatu behar da. Ez da zuzena zainketaren kostuaz hitzegitea berarekin asoziaturiko faktoreak kontutan izan gabe. Horregatik administrazio edo agintari ezberdinen datuak diferentziak izaten dituzte eta alderdi hau oso konfiantzaz izan beharra dago.

Gauza bera esan behar da sektore ezberdinen arteko kostu-diferentziak epaitzerakoan. Zentru pribatu eta publikoak konparatzean agertzen da, lehendabizikoen kostuak txikiagoak direla tokiko agintarien eskuetan dauden zentruetakoak baino. Datu hau, bat dator Ipar Ameriketara jaso diren datuekin ere. Baina hala ere, esan beharra dago, egin diren ikerketetan oraindik erantzun gabeko puntuak daudela bi sektoreen emaitzez.

Zainketari buruzko kontsiderazioen balantzea

Asko idatzi izan da "diruaren balioaz" eta zainketaren orekaz. Funtsean zera egin da: zainketa-zerbitzu alternatiboetarako behar diren baliabideen balorazioa, zerbitzu horietatik espero diren edo ezagunak diren emaitzak eta dagozkien populazioen ezaugarri eta premiak. Zainketa-balantze batzuen oinarri enpirikoa susmagarria izan da eta kostuen konparaketa behar bezala egiteko, aurrena, bezeriak dituzten diferentziengatik kostu-aldeak ezabatu behar dira.

Kostu-inflazioa

Egoitza-zainketak azken urteotan egundoko kostu-inflazioa izan du. Gerra-ondoko aldian aldaketa sakonak egin dira egoitzazentruen diseinaketan eta establezimenduen eskaintzen dituzten zerbitzuetan, baita ingurune sozialean ere. Guzti honek seguraski inpakto nabaria izan du bezeroen ongizatean, baina funtsezko eragina izan du kostuen baitan ere.

Adibidez, dependentziaren maila aldatzeko eragina izan duen kostuen igoeran. Orain, esaterako, adinekoen zentruak batezbeste txikiagoak dira, biztanleria dependenteagoa daukate beren baitan, egoiliarren sartu-irten handiagoa dute, bi sexuak bate-

ra dauzkaten zentruak dira eta garbitzeko arropak ez dituzte beren etxeetara bidaltzen. Kostu-funtzioaren kalkuluak denborarteko diferentzia hauen berri ematen du eta azalpen ezberdin hauek batabestearekin nola konparatzen diren erakusten digu.

Kostua, zainketa-kalitatea eta gizarte-ingurunea

Ongizate-produkzioaren planteiaketa-
ren oinarria da ebaluaketak eta politikagintzak zainketa hornitzeko erabilitako baliabideen (kostuak neurtuz) eta zainketaren emaitzaren arteko asoziazioaren azterketa, baliabidezkoak ez diren faktore ezberdinen eragina berdin mantenduz (egoiliar eta pertsonalaren jarrerak, gizarte-ingurunea eta abar). Egoitza-zainketak adinekoei eskaintzen dien zerbitzua funtsean bitarikoa da. Oinarrizko garrantzia dute egoliarren bizi-kalitatean gertatzen diren aldaketak, baina era berean ez dira ahaztu behar besteek ere jasotzen dituzten mesedeak, batez ere egoiliarren senide eta adiskideek. Zama astunak kentzen zaizkie gaitetik eta egoiliarrei eskaintzen zaien bizi-kalitateaz jabetzen dira. Zainketa-kalitatea funtsezko emaitza da, eta zuzeneko eragina du egoliarren arduratzen diren eta egoiliar ez direnek sentitzen duten onuran, nahiz eta bi kasuetan onura hori mugatua izan beti.

Hala ere, zainketa-kalitatea neurri pobre eta arriskutsua da: oso informazio urri bait dugu azken emaitzaz duen harremanari buruz eta, bere baitan, era askotako faktoreak biltzen dituelako. Estatu Batuetan buruturiko ikerketek agerian jarri dutenez, gizarte-ingurunean dauden diferentzien efektuak aztertzeko egoiliarren ongizateari dagokionez britainiar ikertzaileek erabili izan duten

baino askoz ikerketa-diseinu arretatsuagoak behar dira. Puntu honetan Leemeier, Levvin eta Murrayren lanak oso kontutan hartze-koak dira.

Levvinek, adibidez, ziurtatu du portae-
ra pertsona eta bere ingurunearen arteko harremanaren funtzioa dela. Murrayk ere idatzi du pertsona eta ingurunearen arteko harremanez baina premia pertsonalen eta ingurune-presioaren arteko oreka optimoa-
ren garrantzia azpimarratu du.

Azken ondorioak

Adinekoak zaintzeari buruzko politikagintzazko erabakiak beti oinarritu dira parte batean kostu hautemanaren eta eskura dagoen kostu-informazioan. Azken bolada honetan, kostuen garrantzia gehitu egin da erabakiak hartze prozesuan, baina ikerketaren erantzuna ez da asebetegarria gertatu. Zainketa-baliabideak urriak izateak gero eta interes handiagoa sortu du kostu-bariazioei buruz zerbitzuak, agentziak eta zainketa-unitateak direla-eta. Bariazio hauek ematen dute kostu-funtzioen azterketarako oinarria. Laburpen honetan Ingalaterrako egoerari buruzko datu zehatzik ez dugu eskaini, bertako egoerari lotuegiak direlako, baina xehe-tasun horik alde batera utzirik ere, beste edozein herrialdeetarako interesgarriak izan daitezkeen joera eta aztarnak aipatzera mugatu gara ezinbestez oso mugatua izan behar zuen gainbegiratu honetan.

Ageing an Society, 4, 2, 1984, 157-183
"The Cost of Residential Care for the Elderly: The Effects of Dependency, Design and Social Environment"-Robin Darton and Martin Knapp-
en artikulutik Xabier Mendigurenek *laburbildua*.